

GU BE BAI  
hai

# Gu be bai

## EUSKARAREN HITZARMENA

### Lana eta euskara elkarren eskutik ibili daitezke

Lana eta euskara eskutik joan daitezkeela pentsatzen dutenentzat egina dago liburuxka hau. Batzuentzat horrelaxe izan da beti: bere ofizio edota lanpostuan euskara erabiltzen dute gehienetan. Beste zenbaitentzat, ordea, urrutiko kontuak dira: bere ingurunean euskaldun gutxi dago eta ez dute inoiz erabiltzen lan kontuetan edo harreman komertzialetan, esate baterako.

Zuk ere uste baduzu lan mundua eta euskara elkarren eskutik ibili daitezkeela, irakur ezazu liburuxka hau. Enpresari, langile, administrari, teknikari, gerente, sindikalista, merkatari... guztiok baitugu gure eguneroko jardunean euskarari toki handiagoa egiteko aukera.

Eguneroko aukera horiek gauzatzeko bideak erakutsi eta erraztu nahi dizkizugu.



### **Etokizuna euskaraz dator**

**Etokizunean gazteak gero eta euskaldunagoak izango dira.**

Gaur egun Arrasateko gazteen %85ek euskaraz daki. Horrenbestez, datozen hamar urteetan lanean hasiko diren gazte gehienak euskaldunak izango dira. Gero eta gehiago dira, beraz, langile nahiz bezeroen artean euskaldun ondo trebatuak edota euskara ikasteari denbora eta esfortzua eskaini diotenak.

**Aurrerantzean laneko eta harremanetarako hizkuntza ere izango dugu euskara**

Mundu globalizatu honetan gizartea aldatuz doa etengabe. Bizilegea da, ordea, aldaketei aurre egin beharra izatea. Arrasaten zenbait entitate hizkuntza berrikuntzaren aldaketarako prestatzen hasita daude. Izan ere, badakite euskara behar dutela aurrerantzean konpetitiboak izango badira. Hori dela eta, eguneroko jardueran euskara gero eta gehiago erabiltzen saiatzen ari dira. Gaur egun 43 dira GU BE BAI Euskararen Hitzarmenean euskara erabiltzeko normalizazio plana duten entitateak .

**Kalitatea euskararen eskutik dator**

Euskarak gero eta funtzio gehiago ditu gure gizartean. Gero eta gehiago gara euskararen aldeko aukera egiten dugunok, eskolan ikasiz edota gure harremanetan erabiliz. Gero eta gehiago gara familian eta lagun artean euskara erabiltzen dugunok. Are gehiago, gero eta gehiago gara lanean, erosketak egitean, kutxan edo bankuan egiten ditugun gestioetan eta mota guztietako entitateekin ditugun harremanetan euskara erabiltzen dugunok. Horregatik, kalitatez lehiatu nahi duten entitateek euskara ere aintzat hartu behar dute. Kalitatea euskararen eskutik dator.

**Gure laguntza eskaintzen dizugu**

Gure laguntza eskaintzen dizugu. Horixe eskaintzen dizugu: zure hizkuntza beharrei aurre egiteko laguntza. Zure enpresa, denda edo entitatean euskararen erabilera bultzatu nahi baduzu, zure beharretara egokitutako hizkuntza zerbitzuak eskaintzen dizkizu Arrasateko Udalak, GU BE BAI Euskararen Hitzarmenaren bidez. Hauexek dira, bestek beste, eskaintzen dizkizugun laguntzak:

## Hizkuntza aholkularitza

Zure entitatean euskara aspalditik erabiltzen baduzu edota aurrerantzean euskara erabiltzea erabaki baduzu, ZORIONAK!!! Gure aholkularitza zerbitzua eskaintzen dizugu: esaiguzu zer behar dituzun eta soluzioak bilatzen lagunduko dizugu. Zure hizkuntza beharrei aurre egiteko, prest gaituzu aholkularitza zerbitzua emateko.

## Dirulaguntzak

Hizkuntza paisajeak berebiziko garrantzia du hizkuntza baten erabileran. Kale eta bide seinaleek eragin handia dute hizkuntzaren normalizazioan. Enpresa, denda, taberna edo entitate batera sartzean, errotulazioak berebiziko garrantzia du bezeroak erabiliko duen hizkuntza aukeratzeko orduan. Lantokietako ordenadoreek ere gure hizkuntza erabileran eragiten digute, etengabe seinale idatziak bidaltzen dizkigute eta.

Hori dela eta, Arrasateko Udalak, euskararen erabilera sustatzeko asmoz, dirulaguntza hauek ematen ditu: errotuluak, agiriak eta programa informatikoak euskaraz jartzeko dirulaguntzak.

## Hizkuntza prestakuntza

Zure entitateak dituen hizkuntza prestakuntzako beharrei aurre egiten ere laguntzen dizugu. Prestakuntza tekniko beharrezkoa den bezala, hizkuntza prestakuntza ere beharrezkoa da. Etxean edo eskolan ikasitako euskara eginkizun berrietara egokitu beharra dago. Horregatik, zure enpresa edo entitateko pertsonala lanean euskaraz egin dezan prestatu nahi baduzu, zerbitzu hauek eskaintzen dizkizugu: euskalduntze-alfabetatzeko ikastaroak, euskara teknikoko ikastaroak, zure entitateari egokitutako ikastaroak.

## Normalizazio planak

Euskara eta lana elkarren eskutik joan daitezke. Arrasateko zenbait enpresa eta entitatetan euskara eta lana elkarren eskutik doaz. Izan ere, dagoeneko Arrasaten badira 60 entitate -enpresa, denda, kultur eta kirol elkarte eta abar- euskararen erabilera normalizatzeko plana martxan daukatena. Horietako batzuek GU BE BAI Hitzarmeneko partaide dira eta gure laguntza jaso dute. Zure entitateko normalizazio plana egiteko laguntza eskaintzen dizugu. Zeure entitatearen beharretara egokitutako plana egiten lagunduko dizugu. Esaiguzu zer helburu eta behar dituzun, soluzioak aurkitzen lagunduko dizugu eta.





## Errotuluak eta irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzak

Hizkuntza paisajeak berebiziko garrantzia du hizkuntza erabiltzean. Kale eta bide seinaleek eragin handia dute hizkuntzaren normalizazioan. Enpresa, denda, taberna edo entitate batera sartzean, errotulazioak berebiziko garrantzia du bezeroak erabiliko duen hizkuntza aukeratzeko orduan.

Hori dela eta, Arrasateko kaleen izenak eta bide seinaleak euskaraz jartzea erabaki zuen Arrasateko Udalak orain dela urte batzuk. Beste alde batetik, denda, saltoki, taberna eta, oro har, entitateetako errotuluak eta irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzak ematen ditu Arrasateko Udalak.

Hortaz, bada, bi ataletan jaso ditzakezu hizkuntza paisajea euskalduntzeko dirulaguntzak: alde batetik, zure entitateko errotulua euskaraz jartzeko eta, bestetik, zure entitatearen irudi korporatiboa euskalduntzeko.

Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar da dirulaguntza eskabidea.



## Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak.

**Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntza.**  
Errotulua euskara hutsean jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 50.000 pezetakoa izango da.

**Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak.**  
Errotulua euskaraz eta gaztelaniaz jarriz gero, kostuaren %10 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 10.000 pezetakoa izango da. Edozein kasutan, euskarazko testuari lehentasuna eman beharko zaio kokapen, neurri edota intentsitateari dagokionez.

*Baldintza hauek bete behar dira dirulaguntza jasotzeko:*

Errotuluan izen eta deiturak besterik agertzen ez direnean, ez da inolako dirulaguntzarik emango.  
Errotuluko testuak zuzen idatzita egon beharko du.  
Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

## Irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzak.

Zure entitatearen irudi korporatiboa euskaldunduz gero, kostuaren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 20.000 pezetakoa izango da.

Arrasateko Udalak hauek hartzen ditu irudi korporatiboaren elementutzat:

- Kartazalak
- Membretedun orriak.
- Bisita txartelak.
- Entitatearen identifikazio zigilua.
- Albaran, fakturak...
- Ibilgailuen errotulazioa.

*Baldintza hauek bete behar dira dirulaguntza jasotzeko:*

- Testuak zuzen idatzita egon behar du.
- Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.



**Arrasateko Udala**  
**Euskara zerbitzua**

Herriko plaza nagusia, z/g  
20500 Arrasateko Udala  
☎ 943 79 09 00 Fax. 943 79 08 56  
✉ euskara@arrasate-mondragon.net



## Euskarazko programa informatikoen erabilera sustatzeko dirulaguntzak

Informazioaren garaian bizi garela eta, informatika ezinbesteko lan tresna bihurtu zaigu. Eta aurrerantzean gero eta garrantzi handiagoa izango duela ematen du.

Aisialdian ere informatikak gero eta garrantzi handiago du. Haurrak eta gazteak dira aisialdian informatikaren erabiltzaile nagusiak. Zure ordenadorean euskarazko programarik erabili nahi baduzu, orain baduzu horretarako aukera. Dagoeneko bada merkatuan euskarazko programa informatikorik:

- Microsoften Office2000, ofimatikako programa sorta.
- Microsoften Windows98, sistema eragilea.
- Internet Explorer 5 nabigatzailea.

Hortaz, bada, euskarazko programarik erosten baduzu, ZORIONAK!!!, Arrasateko Udalak hartarako dirulaguntza emango dizu eta:



## **Prezioaren %50eko dirulaguntza jaso dezakezu.**

Goian esandako programa horietakoren bat erosten baduzu, prezioaren %50 ordainduko dizu Arrasateko Udalak, zure entitatea mota honetakoa bada:

- Ikastetxea.
- Akademia.
- Euskaltegia.
- Kultur elkarte.
- Kirol elkarte.

Programa bakoitzetik ale bat baino gehiago erosiz gero, ale bateko %50eko dirulaguntza izango du eta gainontzekoek %25ekoa. Edozein kasutan, dirulaguntza jaso ahal izateko faktura aurkeztu behar da Euskara Zerbitzuan.

## **Prezioaren %25eko dirulaguntza jaso dezakezu.**

Gainontzeko entitateek euskarazko programa informatikoen prezioaren %25eko dirulaguntza jasoko dute. Herritarrek ere bai. Programa bakoitzetik ale bat baino gehiago erosiz gero, ale bateko dirulaguntza baino ez da jasoko. Edozein kasutan, dirulaguntza jaso ahal izateko faktura aurkeztu behar da Euskara Zerbitzuan.



### **Arrasateko Udala Euskara zerbitzua**

Herriko plaza nagusia, z/g  
20500 Arrasateko Udala  
☎ 943 79 09 00 Fax. 943 79 08 56  
✉ euskara@arrasate-mondragon.net



## Hizkuntza prestakuntzako zerbitzuak

Azken urteotan euskara eskoletan sartu da. Horri esker, gure haur eta gazteek euskaraz ikasteko aukera izan dute. Gaur egun, eskolaurrean hasi eta unibertsitaterainoko ikasketak euskaraz egin daitezke. Arrasateko haur eta gazteen %85ek euskaraz daki. Adin batetik gorako jendeak, ostera, ez du eskolan euskaraz ikasterik izan. Beste askok jakin ere ez daki euskaraz hitz egiten. Beste alde batetik, asko dira lana euskaraz egiteko zailtasunak dituzten euskaldunak.

Hori dela eta, zure entitateak dituen hizkuntza prestakuntzako beharrei aurre egiten ere laguntzen dizugu. Prestakuntza teknikoa beharrezkoa den bezala, hizkuntza prestakuntza ere beharrezkoa izaten da lan askotan. Etxean edo eskolan ikasitako euskara eginkizun berrietara egokitu beharra dago. Zure enpresa edo entitateko pertsonala lanean euskaraz egin dezan prestatu nahi baduzu, zerbitzu hauek eskaintzen dizkizugu:





## **Euskalduntze ikastaroak.**

Oraindik ere euskara ondo ez dakiten pertsonentzat. Eskolak zure enpresan edo entitatean hartzeko aukera duzu, komeni zaizun orduetan, gainera. Eskolak euskaltegian hartzea nahiago baduzu, ordutegi aukera handia duzu.

## **Alfabetatze ikastaroak.**

Euskaraz hitz egiten jakin bai, baina irakurtzen edo idazten ez dakiten pertsonentzat. Alfabetatze ikastaro laburrak ere antolatzen ditugu: testu laburrak eta eskutitzak idatzi eta albaranak, fakturak eta inprimakiak betetzen ikasteko, adibidez.

## **Euskara teknikoko ikastaroak.**

Zeure enpresa edo entitateko lan eginkizunetarako egokitutako euskara ikastaroak ere eskaintzen dizkizugu. Edozein ikastaro mota antolatu dezakegu, hala nola: harrera lanetan euskara erabiltzeko ikastaroak; telefonozaintzako ikastaroak; idazkaritza, administrazioa edota kontabilitatea euskaraz eramateko ikastaroak.



### **Arrasateko Udala Euskara zerbitzua**

Herriko plaza nagusia, z/g  
20500 Arrasateko Udala  
☎ 943 79 09 00 Fax. 943 79 08 56  
✉ euskara@arrasate-mondragon.net

GU  
DE  
hai



## Hizkuntza aholkularitza

Zure entitatean euskara aspalditik erabiltzen baduzu edota aurrerantzean euskara erabiltzea erabaki baduzu, **ZORIONAK!!!** Gure aholkularitza zerbitzua eskaintzen dizugu: esaiguzu zer behar dituzun eta soluzioak bilatzen lagunduko dizugu. Zure hizkuntza beharrei aurre egiteko, prest gaituzu aholkularitza zerbitzua emateko. Eguneroko jardueran euskara erabiltzean dituzun oztopoak gäinditzen lagunduko dizugu. Zure esfortzuak gure laguntzaren saria izango du, hala behar baduzu.

Hauexek dira zure esku jartzen ditugun zerbitzuak:



## Hizkuntza eta terminologia kontsultak.

Euskaraz idaztean dituzun zalantzak argitzen lagunduko dizugu. Berdin dio zer zalantza duzun, telefonoz deitu eta argituko dizugu.

## Testuen zuzenketa.

Zuk zeuk egindako testuek inolako akatsik ez izatea nahi baduzu, zuzendu egingo dizkizugu. Zuk idatzia egin eta guk zuzendu. Horixe da gure zerbitzua. Eta bizkor, gainera. Testuak laburra izan behar du, baina.

## Testu ereduak (eskutitzak, ordainagiriak...).

Egunero erabiltzen dituzun agiri ereduak ere euskaraz jarriko dizkizugu. Gehien erabiltzen dituzun agiriak –eskutitzak, ordainagiriak, inprimakiak,...- ekarri eta euskaraz erabiltzeko moduan jarriko dizkizugu.

## Itzulpen teknikoa.

Eduki teknikoko testuak euskaraz jartzea zaila izaten da: ez da edozeinek egiteko moduko lana. Horrelako testurik baduzu, guk jarriko dizugu euskaraz. Hori bai, testuak laburra izan behar du. Gainontzerakoan, itzulpen zerbitzu batera bidali beharko duzu. Euskarazko material berriari buruzko informazioa. Etengabe euskaraz argitaratzen den materialaren berri emango dizugu. Izan ere, gaur egun merkatuan baduzu zuk behar duzun materiala, hala nola: hiztegi orokorrak eta berezituak; programa informatikoak eta zuzentzaile orografikoak; oparitarako liburuak, CD-roomak eta materialak.



### Arrasateko Udala Euskara zerbitzua

Herriko plaza nagusia, z/g  
20500 Arrasateko Udala  
☎ 943 79 09 00 Fax. 943 79 08 56  
✉ euskara@arrasate-mondragon.net



## Normalizazio planak

Euskara eta lana elkarren eskutik joan daitezke. Arrasateko zenbait enpresa eta entitatek apustu gogorra egin dute: lana euskararen eskutik joateko plana jarri dute martxan. Izan ere, dagoeneko Arrasaten badira 60 entitate -enpresa, denda, kultur eta kirol elkarte eta abar- horrelako plana daukatenak. Horietako asko GU BE BAI Hitzarmeneko partaide dira eta gure laguntza jasotzen dute.

# GUDE hai

Zuk zeuk ere behin baino gehiagotan pentsatuko zenuen zure enpresan edota partaide zaren entitatean euskara erabiltzeko garaia iritsia dela: euskara eta lana elkarren eskutik joatea nahi duzula, alegia. Horrela bada, gure laguntza eskaintzen dizugu. Zure enpresa edo entitateko normalizazio plana egiteko laguntza eskaintzen dizugu.

Zeure enpresak edo entitateak behar duen moduko plana egingo dugu. Elkarrekin egingo dugu, gainera, zuk hala erabakitzen baduzu. Esaiguzu zer helburu eta behar dituzun, soluzioak aurkitzen lagunduko dizugu eta.

Normalizazio plan hori egiteko lehehengo zure erakundearen ezaugarriak eta hasierako hizkuntza egoera jasoko ditugu. Gero, eta azterketa horri jarraituz, hizkuntza egoera hori hobetzeko eman beharreko pausuak zehaztuko ditugu, beti ere zure erakundearen baliabideak eta helburuak kontuan hartuta. *Hauexek dira, beraz, emango ditugun pausuak:*

- ✓ Erakundearen ezaugarriak jasotzea.
- ✓ Erakundearen hizkuntza egoera jasotzea.
- ✓ Normalizazio plana egitea.
- ✓ Normalizazio planaren jarraipena eta ebaluazioa.

Gainera, gogoratu, normalizazio plana abian jartzeko, gure aholkularitza zerbitzua eskainiko dizugula, euskara erabiltzean sortzen zaizkizun oztupoak gainditzeko laguntzeko.



## Arrasateko Udala Euskara zerbitzua

Herriko plaza nagusia, z/g  
20500 Arrasateko Udala  
☎ 943 79 09 00 Fax. 943 79 08 56  
✉ euskara@arrasate-mondragon.net



## **Web orriak euskaratzeko dirulaguntzak**

Teknologia berriek komunikatzeko eta negozioak egiteko mundu berri bat sortu dute, ziztu bizian mugitzen ari dena, gainera. Arrasaten ere, gero eta erakunde, enpresa eta elkarte gehiagok dauka web orria eta, entitateok sarean erabiltzen duten hizkuntzak ere zeresan handia dauka bezeroak erakunde horrekin komunikatzeko orduan erabiliko duen hizkuntzarekin.



- ➔ Web orria euskara hutsean jartzen duenari, kostuaren %50 ordainduko dio Udalak, gehienez ere 450 €.
- ➔ Web orrian hasierako orria euskara hutsean eta gainontzekoa euskaraz eta beste hizkuntzaren batean jartzen duenari, kostuaren %40 ordainduko dio Udalak, gehienez ere 360 €.
- ➔ Web orria euskaraz eta gaztelaniaz edota beste hizkuntzaren batean jartzen duenari, kostuaren %20 ordainduko dio Udalak, gehienez ere 180 €.



**Arrasateko Udala**  
**Euskara zerbitzua**

Herriko plaza nagusia, z/g  
20500 Arrasateko Udala  
☎ 943 79 09 00 Fax. 943 79 08 56  
✉ euskara@arrasate-mondragon.net

# dirulaguntzak



## errotuluak

EUSKARAZ	%50	Gehienez 300 € (50.000 pta.)
EUSKARAZ + GAZTELANIAZ	%10	Gehienez 60 € (10.000 pta.)

- Euskarazko testuari lehentasuna (kokapena, neurria).
- Izena eta abizena bakarrik agertzen denean EZ.
- Zuzen idatzia.

## irudi korporatiboa

EUSKARAZ	%50	Gehienez 120 € (20.000 pta.)
EUSKARAZ + GAZTELANIAZ	%15	Gehienez 90 € (15.000 pta.)

- Menbretedun orriak
- Fakturak
- Bisita txartelak
- Ibilgailuen errotulazioa...

## baliabide informatikoak

IKASTETXE / AKADEMIA ELKARTEAK EUSKALTEGIAK	- Lehen alea..... %50. - Hurrengoak..... %25.
PARTIKULARRAK	- Lehen alea..... %25. - Hurrengoak..... EZ.

- Microsoft Office 2000
- Microsoft Windows 98
- Internet Explorer 5

## web orriak

• EUSKARAZ	%50	Gehienez 450 € (75.000 pta.)
• HASIERAKO ORRIA EUSKARA HUTSEAN; GAINONTZEKOA EUSKARAZ EDO BESTE HIZKUNTZAREN BATEAN	%40	Gehienez 360 € (60.000 pta.)
• WEB ORRI OSOA EUSKARAZ ETA BESTE HIZKUNTZAREN BATEN	%20	Gehienez 180 € (30.000 pta.)





**Arrasateko Udala**  
**Euskara zerbitzua**

---

Herriko plaza nagusia, z/g  
20500 Arrasateko Udala  
☎ 943 79 09 00 Fax. 943 79 08 56  
✉ [euskara@arrasate-mondragon.net](mailto:euskara@arrasate-mondragon.net)

